



TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

hitza



Ostirala
2009-02-27

VII. URTEA 1.640. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Santiago egoitzako langileek gaur ere egingo dute lanuztea, 10:00etatik 13:00etara. M.G.

Santiago zaharren egoitzako langileek lanuzteei ekin diete

VILLABONA Herenegun egin zuten lehenengoa eta gaur ere 10:00etatik 13:00etara egingo dute, ELA sindikatuak deituta 7

Finalaren etorriko partida Zeberioentzat

ELDUAIN Labrit pilotalekuan lehiatuko da erremontista Urrutiaren aurka, 19:30ean 6

IRATI MUJICA EUSKAL PRESO OHIA

«Pertsonalki uste dut ez dudala inongo omenaldirik merezi»

AMEZKETA Gaur iluntzean ongietorria egingo diote Ugarteko frontoian; ondoren, afaria 6

Ezker Hormako
neurketak
izango dira
Anoetan eta
Tolosan 2

Amaitu dituzte
Ibarran 0-2 urte
bitartekoan
haurtzaindegiko
lanak 7



Otsailak 28

LARUNBATA

SU TA GAR

KONTZERTU HANDIA

SALMENTA PUNTUAK: • Zumbeltz musika denda (Tolosa)
• Peritza taberna (Leitza)
• Leku ona taberna (Etxarri-Aranatz)
• Ilargi taberna (Lekunberri)
• tic-tac ticket web orrian

SARREREN PREZIOA: Aurretik 12€ eta leihatilan 15€

Kontzertua bukatu eta gero, sarrera doan eta areto nagusian ● Dj Julen ●

Ezker hormako partida garrantzitsuak jokatu dituzte Anoeta eta Tolosan



Nagore Arozena lizartzarra Maika Elguezabalekin batera lehiatuko da etzi Beotibar pilotalekuan. M. SOROA

Pilota » II. El Diario Vasco Sariko finala ikusgai izango da etzi Beotibarren; bihar Anoetan, II. Emakumea Pilotaria Irekiko saioak.

Aginagan. Anoetako Alkartasuna pilotalekuan 16:30ean hasiko dira norgehiagokak. Hasteko, Y. Aristorena-Cotin bikotea Indurain-Oteginen aurka ariko dira.

Ondoren Tijero eta Gutierrez, Lizeaga eta Perezen kontra. Jarraian, Dominguez-Unanue eta Arteaga-Aburuzaren arteko lehia ikusi ahalko da. Amaizteko, Diez eta Okarizek, Pagola eta Otxotorena izango dituzte aurrez-aurre. Jardunaldi honetako beste bost partidak Aginagako pilotalekuan jokatu dira, 16:00etatik aurrera.

Biharko emaitzen arabera zehaztuko da zein zortzi bikote igaroko diren final-laurdenetara. Multzo bakoitzeko bi bikoteek poltsikoratuko dituzte aurrera jarraitzeko txartelak.

3. eta 4. postuak ere lehia

Ezker hormako II. Emakumea Pilotari Irekia txapelketako norgehiagoz gain, II. Diario Vasco Sariko azken partidak ere jokatu dira asteburu honetan. Etzi, igandean, Beotibar pilotalekuan amaituko da txapelketa. 11:30ean

hasiko da jardunaldia, eta lehendabiziki hiru eta eta laugarren postuak jokatu dira. Hau amaitzean jarriko da jokoan bigarren edizio honetako txapela.

Zarauzko Aritz batalde pelotalekuan jokatu ziren joan den igandean, bi finalerdiak. Bertan erabaki ziren nortzuk ariko ziren txapelaren bila, eta nortzuk, hirugarren postuenera.

Urkizu eta Montes, Fernandez eta Ruiz de Larralderen arteko izango da igandeko lehendabizikoa. Bi bikoteak 30 tantora iritsi gabe geratu ziren finalerdietan, baina, oso partida ezberdinak jokatu. 11:30ean hasiko da jaialdia irekiko duen partida

Ligaxkan, B multzoan, elkarren aurka jokatu zuten Urretxuko Ederrena pilotalekuan eta erraz nagusitu ziren Itsaso Urkizu eta Ainhoa Montes.

Finalean berriz, aurrez aurre izango dira Elguezabal-Arozena, eta Muneta-Bordagaray. Hauek ere ligaxkan elkarren aurka jokatu heldu dira finalera. Hernaniko udal pilotalekuan izan zen neurketa, eta ia ordu eta erdiko iraupena izan zuen partida luze bezaingogorak. Azkenean Elguezabal eta Arozena nagusitu ziren 30-23ko emaitzarekin.

Laburrak

Aiako Pegoetara txangoa, Urkizu eta Aldabakoentzat

TOLOSA • Emakumearen Nazioarteko Egunaren harira, txango bat antolatuko dute Urkizu eta Aldabako Auzo Elkarteetakoek. Martxoaren 7an, 10:30ean abiatuko dira Benta Haunditik eta Aiako Pegoetara joango dira, Iturran lorategi botanikoa ikustera. Ondoren, Oriara bideratuko dira eta San Martinen bazkalduko dute. Txangoan izena emateko epea martxoaren 3ra bitartean luzatuko dute. Honetarako, interesatuek 652 70 96 80 telefono zenbakira dei dezakete.

Bihar, 12:00etatik aurrera, Tolosa Kantari izango da

TOLOSA • Otsaileko azken eguna denez biharko, hilabetero bezala, 12:00etatik aurrera Tolosa Kantari kantujira izango da Alde Zaharreko kaleetatik barrena. Joan den ekainean jarri zen martxan ekimena, euskal kantuzaletasuna sustatzeko asmoz. Orain, beste urrats bat gehiago eman nahi dute kantu sorta bat eginez. Hau da, kantu liburuxka bat plazaratu nahi dute, abestien letrak eskura edukitzeko hileroko kantujiran edota nor bere ospakizun eta ekitaldietan.

Tolosan eta Villabonan, azken estreinaldiak ikusgai

ZINEMA • Gaur, Villabonako Gurea zinemaren *Siete Almas* filma izango da ikusgai 22:30etik aurrera. Bihar berriz, 17:00etan *El reino de los niños* eskainiko dute; eta 19:30eko nahiz 22:30eko saioetan, *Siete Almas*. Tolosako Leidorren berriz, gaur 22:30ean, *La clase* izango da ikusgai. Bihar, 19:30ean, *Valkiria* eta 22:30ean, *La clase*.

Aurrera-Saizkoek partida ugari dituzte asteburuan

PILOTA • Aurrera-Saiz pilotalekukoek hainbat partida izango dituzte asteburu honetan. Hasteko, gaur, 19:30etik aurrera, kadete eta jubenilen mailakoak ariko dira Bidegoianen. Bestalde, ordu berdinean, seniorrak Ibarran lehiatuko dira. Azkenik, bihar goizean ere Aurrera-Saizkoen pilota partidak izango dira. 10:00etatik aurrera jokatuko dira, Tolosako Beotibarren.

Bikain aritu dira eskualdeko piano-joleak

TOLOSA • Eduardo Mocoeroa Udal Musika Eskolako ikasleak Andoingo IV. Piano Jaialdian izan dira. Txapelketa hilaren 14 eta 15ean jokatu zen, goiz eta arratsalde. Eskualdetik 20 piano-jotzailek hartu zuten parte emaldian. Denen artean, bi urrezko domina, hamaiak zilarrezko eta zazpi brontzezko irabazi zituzten. Emaitza hauek ikusita, Musika Eskolak, bere ikasleak zoriondu ditu txapelketan «egindako lan onarengatik», eta horrela jarraitzeko eskatu. HITZA



informazioa **h**

Martxoaren 2an astelehenean

EAEko hauteskundeak HITZAn

i eskualdeko emaitzak herriz herri

HITZAri buruzko informazioa

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

bozkatu
 **EAJ**
PNV
jakin eta egin

**IGANDE HONETAN
INOIZ BAINO GEHIAGO,
ZURE BOTOA
ERABAKIORRA DA
EUSKADIREN ETORKIZUNERAKO**

 **ibarretxe**

ORAIN INOIZ BAINO GEHIAGO

'Animaliak' ikuskizuna izango da ikusgai, bihar, Leidor aretoan

Tolosa » Gaztetxoiei zuzendurikoa da, eta dantza eta antzerkia uzartzentz diti; Jon Ariño da zuzendaria.

ERREDAKZIOA

Gaztetxoenei zuzenduriko emandiaz gozatzeko aukera izango da bihar, larunbatean, Leidor aretoan, 17:00etatik aurrera. Hain zuzen ere, *Animaliak* dantza eta antzerki ikuskizuna izango da taularatu duna.

Jon Ariño da lan honen zuzendaria, eta parte hartzen duten antzezle dantzariak Maria Martin, Eguzki Zubia eta Bego Krego dira.

Mundu zirraragarria

Beste mundu batera bidaiatu egingo bagenu bezala sentituko gara ikuskizuna hasi orduko: «zirkulu bat, lurra. Magma likidoa, soinu bat. Big Bang-a, bidai fantastiko baten hasiera. Loreak eta landareak dantzan, baita zizareak eta beste izakiak ere. Dena etengabe mugitzen eta aldatzen da. Mundu zirraragarri eta dibertigarria. Paradisu galduan murgilduko gara pertsonaia hauen eskutik, dantza eta poetika eszenikoaren bidez».

Hiru talde ariko dira, bihar, Blues Gauean

Zizurkil » Egitaraua gaur arratsaldean hasiko da, Atxulondon eskainiko duten blues kontzertu didaktikoarekin.

ERREDAKZIOA

Aurreko urteetan bezala, Zizurkilgo Udaleko Kultura Sailak, herriko tabernarekin batera, Blues Gaua antolatuko du, *Zizurkilaren ezker ez ta festa!* zikloaren baitan. Hala, herriko tabernetan r&b, r&r eta bereziki blues musika entzuteko parada izango da toki desberdinetatik etorritako hiru taldeekin, eta ohiko moduan, sarrera libre izango da. Jaialdia gaur hasiko da, Atxulondo kultur etxean, 17:30ean izango den

blues musikaren inguruan kontzertu didaktikoarekin. Blues musikaren kultura eta ezagutza zabaltzea izango du honek helburu, eta Belceblues taldeko kideek hartuko dute parte.

Bluesa zuzenean

Biharko gauari dagokionez, 23:00etan, Atxulondo tabernan Belceblues euskaldunak ariko dira, eta, besteak beste, 70eko hamarkadako klubetako giroa gogoratuko dute. 00:15ean, Egarrri tabernan, Big Mama Montse (Herrialde Katalanak) ariko da, eta perkusioa, joaldia, sendotasun akustikoa... eskainiko du. Azkenik, 01:30ean, Aurrera tabernan, eskarmentu handia duen Blue days (Valladolid) taldea ariko da.



Big Mama Montse. HITZA

K Asteburuko kirol jarduera

Gaur, ostirala

Areto futbola

■ Usabalgo goiko kantxan, 20:30ean: Laskorain-Zaldibia.

Bihar, larunbata

Areto futbola

■ Usabalgo goiko kantxan, Euskal Ligako partida, 16:00etan: Transportes Lakunza - Artamoro Getxo.

Eskubaloia

■ Usabalgo beheko kantxan, infantil mailako partida, 12:00etan: Tolosa - Egia.

■ Usabalgo beheko kantxan, kadeteen partida, 16:00etan: Tolosa - Irurena.

■ Usabalgo goiko kantxan, seniorren mailako partida, 18:00etan: Tolosa - Urola.

Futbola

■ Usabalgo futbol zelaian, infantil mailako partida, 10:00etan: Tolosa CF - Real Union.

■ Usabalgo futbol zelaian, kadete mailako partida, 11:30ean: Tolosa CF - Sporting Herrera.

■ Usabalgo futbol zelaian, kadete mailako nesken partida,

13:00etan, Tolosa CF eta Intxaurdiren artean.

■ Usabalgo futbol zelaian, lurraldekako 2. mailako partida, 15:30ean: Amaroitz - Soraluze.

■ Usabalgo futbol zelaian, lurraldekako lehen mailako partida, 17:30ean: Tolosa CF - Zestoa.

Mahai-tenisa

■ Usabalgo kiroldegiko Gym-ean, 16:30etik aurrera, partidak.

Saskibaloia

■ Usabalgo goiko kantxan, 10:30ean, infantilak: mutiletan, Take C - Zarautz; nesketan, Take B - Sidenor eta Take A - Landaberri.

■ Usabalgo goiko kantxan, kadeteen partidak, 12:00etan: nesketan, Take B - BKL eta mutiletan, Take A - Antigua Luberri A.

Zesta-punta

■ Beotibar pilotalekuan, 16:00etatik aurrera, partidak.

Etzi, igandea

Pilota

■ Beotibar pilotalekuan, 11:00etatik aurrera, Emakumezkoen II. El Diario Vasco Sariko finalak.

Saharar Errepublikaren Arbiar Demokratikoaren urteurrena, gaur

ERREDAKZIOA

Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoa (SEAD) aldarrikatu zuteneko 33. urteurrena betetzen da gaur, eta hori dela eta, herri horri elkartzuna adierazteko, Mendebaldeko Saharako bandera jarriko dute udaletxeetako balkoietan.

30 urte baino gehiago igaro dira sahararrak euren herritik bidali eta errefuxiatu kanpalekuan bizi direla. Erbestea ari dira pairatzen, gerra urteak, eta itxaropen aldiak, desiratzen duten erreferendumen atzeratze eta atzeratzeek zarpuztuta.

Sahararik eskerrak

Bestalde, Saharako Krosean parte hartzerako Tinduferra joan ziren Tolosaldea Sahararekin elkarteko Gregorio Eizagirre eta Jon Diaz, *Essahra Elhora* egunkarian izan dira bisitan. Iaz bertara bideratu zuten eskualdean jasotako laguntza, eta horregatik, bertako zuzendariak Tolosaldeko herritarrek eskertu nahi izan diti, «horri esker jarraitzen baitu martxan».

Halaber, urteurrenaren harira, Tolosaldea Sahararekin elkarrekin gaur, 20:00etan Tolosako Plaza Zaharrean egingo den elkarretaraztera deitu du.

Ezezagunek beregain hartu dituzte igande gaueko erasoak

ERREDAKZIOA

Ezezagunek beregain hartu dute iragan igande gauean Tolosako 2 kutxazainen aurka buruturiko erasoak. TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA-ra bidalitako oharrean, «ekintza honen bidez Euskal Herriak bizi duen salbuespen egoera eta demokrazia eza salatu» nahi izan dutela adierazi dute.

Halaber, PSOE ren Gobernuak «Euskal Herriaren aurka daraman errepresio estrategiak» ez duela etenik diote: «Atxiloketak, debekuak, ilegalizazioak... eta ezin aipatu gabe utzi igandean Tolosaldeko presoak den Andoni Otegi jipoitua izan zela». Hala, «Euskal Herria bere eskubideen jabe egin bitartean lanean eta borrokan jarraituko dugu», gaineratu dute.

UNAI ZIARRETA
INDEPENDENTEA
LEHENDAKARI HAUTAGAIA CANDIDATO A LEHENDAKARI


EMANBOTOAVOTA

MARTXOAREN 1ean
EZ NAZIONALISMORIK
EZ ESPAINOLISMORIK

SOILIK EZKERRA

Bozkatu

Ezker Batua-Berdeak
Ezkerra izatearen harrotasuna



Gaur, finala irabazteko Zeberioaren azken aukera

Elduain » Urrutiaren aurka lehiatuko da gaur Labriten 19:30etik aurrera, Banakako Erremonteko finalaren etorrikoan.

ERREDAKZIOA

Patxi Zeberio II.a erremontista elduaindarra eta Urrutia aurrez aurre ariko dira gaur Labrit pilotalekuan, Erremonteko Banakako Txapelketako finalean (Gran Premio Magna). Etorriko partida da eta 19:30ean hasiko den jaialdiko bigarren norgehiagoka izango da.

Urrutiak joanekoa irabazi zuen, (35-31). Zeberio gaur emaitza bera eginez gero, bost tantoko luzapena jokatu beharko dute. Finala «gogorra eta ikusgarria» espero da.

Saldiaokoak joanekoa irabazi zuen, askoren harridurarako. Izan



Zeberio II.a joaneko finalean. J. ZABALZA

ere, lesioa izan zuen, besteak beste, sorbaldan. Gaur 32 tanto egiten badiu harentzat izango da finala. Aurreko norgehiagoka Matxin III-Iriarte eta Uterga-Badiolaren artekoa izango da. Finala telebistan ikusteko aukera izango da.

Gaurko azken ostiraleko elkarretaratzeak

ERREDAKZIOA

Leitzaldeko eta Tolosaldeko Etxerarek deituta elkarretaratzeak egingo dituzte gaur, hilabeteko azken ostirala izanik. Ohiko leku eta orduetan izango dira.

Hortaz, hauek dira herriz herri elkartzeko orduak: Aduna

20:00etan; Alegia 19:30ean; Amezketa 19:30ean; Anoeta 19:30ean; Asteasu 20:00etan; Ibarra 19:30ean; Ikaztegieta 20:30ean; Leizta 20:00etan; Lizartza 20:00etan; Tolosa 19:30ean; Villabona 20:00etan eta Zizurkil 20:00etan.

berriarekin

Munduko ZINEMA euskaraz

Bost film: Broketai Mountain, Ekoldeko promesak, Gizaen seme-aitak, Ezizurketa, Lorezin leiala

Maitasun istorioak, Zientzia fikzioa, gizona, Kullitako zinema

Otsailaren 28tik aurrera, larunbatera, zure kioskoan BERRIarekin

+ 4,90€

Harpidoduntzat: biEuma 0904 10.40€
Eskema egiteko: 949 30 43 45

aurkeztu azken bizi euskaraz **berria**

Elkarrizketa

IRATI MUJIKA » Euskal preso ohia

«Gaurkoa, ongietorria egin baino, espetxean daudenei omenaldia izatea nahi nuke»

Amezketak » Gaur iluntzean Irati Mujikari ongietorria egingo diote Ugarteko frontoian; ondoren, afaria prestatu dute Amezketak elkarrean.

NEREA URBIZU

Irati Mujika (Amezketak, 1985) joan den urtarrilaren 30az geroztik kalean da, bi hilabete eta erdi espetxeetan igaro ondoren. Gaur ongietorri xume bat egingo diote Ugarteko pilotalekuan 20:30ean (azken ostirala izanik, elkarretaratzeetara joatea posible izatea nahi zuten antolatzaileek), eta ondoren bere sorterriko elkarrean afaria egingo dute. Kartzelaratua izandako egunak ekarri ditu gogora.

Azaroaren 10ean atxilotu zintuzteten. Nola izan zen une hura?


Gauean etxera nindoala atarian bi gizon zeuden eta eraman ninduten. Ez altoa eman ezta atxilotuta eramaten nindutela esan gabe ere auto batean sartu ninduten. Iruñeko komisaldetara eraman ninduten eta han jakin nuen atxilotuta nengoela «terrorismoarengatik» eta inkomunikazioa ezartzen zidatela. Berehala nire etxera eramane ninduten polizia pilarekin eta miaketa egiten hasi ziren.

Inkomunikatuta egon zinen, zenbat denboran?

Astelehen gaueetik; ostiral eguerdian epailearen aurretik pasa ginen. Ostiralean abokatuarekin hitz egin ahal izan genuen.

Deklaratzen deitua izan zinen, azaroaren 14an. Nola izan zen?

Epailearen aurretik pasa ginen. Zenbait galdera egin zizkidan baina ez nuen inongo deklaraziorik egin. Bertan salatu izan nuen zer tratatu jaso nituen poliziaren eskutan eta inkomunikatuta egon nintzen bitartean. Hortik tarte batera espetxeratze agindua jaso nuen.



Mujika herrira iritsi zen egunean. A.I.

Torturatua izan zinela ere salatu duzu.

Bai, bidean kolpeka eta mehatxuka eta Madrilen egon ginen egun horietan zehar interrogatorioan kolpeak, baina bereziki ariketa fisikoak egitea behartzen ninduten. Zutik egotera jarraera txarretan, pikotxean, orpoak altxata... Azken batean nekatuarazten. Bi egun desberdinetan poltsa jarri zidaten buruan eta ia arnasek hartu ezin arte, berriz kendu, berriz jarri... Tarte horietan ariketa fisikoak eginarazten zizkidan.

Irainak ere jaso zenituen?

Bereziki Madrileren bidean: «Ikusi-ko duzu hara iristen zarenean borxatuko zaituzte eta burni bat sartuko dizute» esanez. Horrelako komentarioren bat bai.

Zer leporatu dizute zehazki?

SEG-iko kide izatea. Bakoitzari zein akusazio egiten diguten gutxi, gora behera dakigu baina oraindik ez dakigu zertan oinarritzen diren hori egotzeko.

Urtarrilaren 30ean askatu zintuzteten. Bitartean non izan zara?

Bi hilabete eta erdi egin nituen Soto del Realen (Madril) isolamenduko moduloan, hau da, egunean hiru orduz patiora joateko aukerarekin, gehienetan bakarrik. Zergatik isolamendu egoeran?

Beste emakumeak zeuden tokira eraman ninduten baina behartu

nahi ninduten preso politikoa ez zen batekin zeldan egotea. Baina gure eskubidea da zeldan bakarrik egotea edota bestela, beste preso politiko batekin konpartitzea. Uko egin nionez beraiek jarritako baldintzei, zigor moduan isolamendura eraman ninduten.

Eta handik Valentziara?

Urtarrilaren 26a inguruan Valentziara eraman ninduten, eta hortik ateran nintzen.

Zein dira hurrengo pausoak?

Une honetan epaileak isilpeko sumarioa altxa du. Orduan abokatuak eztertu behar dituzte dauden proba ezberdinak. Hor jakingo dugu gutxi, gora behera zertan oinarritzen diren guri akusazio horiek egiteko edo dena delakoa. Aurrerako, ez dakigu noiz, epaiketa bat izango da gure kontra eta erabakiko dute zer egingo duten gurekin.

Guztira zenbat zaudete?

Guztira 12 pertsonen kontrakoa izango da. Irailaren 30ean hasi ziren atxilotetak eta urrikoak eta azarokoak etorri ziren gero. Guztiok kausa berdina izango dugu eta jakingo dugu orain bakoitzak zer geneukan. Baina epaiketa guztien kontrakoa izango da.

Zer izan da gogorrena?

Gogorrena, bost egun poliziaren eskutan inkomunikatuta egotea. Uste dut gehienentzat hori dela gogorrena. Espetxean gutxienez ez zaude poliziaren eskutan, nahiz eta libre ez egon.

Gaurko ongietorriaz zer duzu esateko?

Eskertzekoa da, halako gauza guztiak eskertzen dira, baina nik pertsonalki ez dut halakorik merezi, bi hilabete eta erdi egin baititut espetxean. Bai, gogorra da baina urteak eta urteak igarotzen ari diren horiek eta barruan gelditzen diren horiek guztiak ikusita, beraientzako omenaldia izatea nahiko nuke, niretzako omenaldia baino.

Valentziatik etorri zinenen ere jendea zain zenuen, ez?

Bai. Lehenik Iruñean gelditu nintzen lagunak ikusteko. Amezketa-ra joan nintzen gero, neketsua izan zen baina merezi izan zuen.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Garbiketak.** Bigi garbitasunak. Alfronbrak, etxebizitzak, bulegoak eta abar garbitzeko prest. Deitu inongo konpromisorik gabe. Irene: 638 944 604 edo 695 708 271.

Donostia aldeko banaketa enpresa batek ADMINISTRARI-KOMERTZIALA lanpostua bete behar du

Lanpostuaren funtzio nagusia, lan komertzialak egiteaz gain, banaketa koordinatzaileekin elkarlanean kanpainan banaketa antolatzea eta haien jarraipena egitea izango da.

Eskaeraren da:

- Urte amaiera arteko kontratua (luzatzeko modukoa).
- Egun osoko lanaldia.

Eskaeraren da:

- Administrazio eta merkataritza arloko ezagutzak.
- Bulegotika programen ezagutza, erabiltzaile mailan.
- Izaera dinamiko eta hurremanetarako erraztasuna.
- Antolaketa gaitasuna.
- Gida baimena eta autoa izatea.
- Lan komertzialean eskarmentua izatea baloratuko da.

Curriculum vitae zehatza bidali martxoaren 10a baino lehen: gizabalabideak@jarduna.net helbide elektronikora edo Jarduna SM (Giza Baliabideak Saila) Martin Ugalde Kultur Parkea, 20140 Andoain helbidera

Ez ahaztu erreferentzia zehatza ADMINISTRARI KOMERTZIALA (Erreferentzia: 09-ET-KOM)

Desadostasunak eta lanuzteak Santiago egoitzan

Villabona» Egoitzaren kudeaketaz arduratzen den Catalunya2 enpresako langileek hiru orduko lanuztea egingo dute gaur.



Villabonako Santiago zahar egoitzaren irudia. M. GALARRAGA

ERREDAKZIOA

Azken hilabeteen Villabonako Santiago zahar egoitzaren inguruan ika-mika piztu da ELA sindikatuaren eta Udalaren artean. Izan ere, ELAk Udalak bertako langile-elanordu gutxiago esleitu dizkiela dio eta honek bitartean, hori ez dela horrela esan du, bere hitzetan langileen kontratazioa kudeaketa enpresaren kontua baita eta ez Udalarena. Bestalde, langileek euren lan baldintzak hobetzeko lanuzteak egiten ari dira.

Aipatu behar da Santiago egoitzaren kudeaketa kanpoko enpresa batek egiten duela: Residencia Geriátrica Catalunya2.

Horiek horrela, ELAk Udalaren webgunea bisitatzeko eta bertan azaltzen diren datuei erreparatzeko eskatu du. Bertan, baldintza-agiriari egoitzan 16 langile auxiliar bereganatu behar zituela irakurri daiteke eta 16 «langile hauei dagozkien orduak 22.609 dira», esan du sindikatuak. «Udalak esleipenean eskatzen dio enpresari 19.448 ordu arabera kontratatzea, hau da 3.081,51 ordu gutxiagoko koadroa txertatzea. 19.448 ordu hauekin 14 ordu bakarrik kontrata daitezke eta ondorioz bi langile ez ditu kontratatzen enpresak, Udalak ezartzen dizkion orduan 14 bakarrik kontratatzeko ematen duela», gaineratu du.

ELA, hala ere, 22.609 orduak mantentzearen aldekoa da, «langile kalean geldu ez zedin», eta horregatik esan du Villabonako alkateari, Maixabel Arrietari (ANV), bilera bat eskatu ziotela eta bere erantzuna «ordu horiek ondo zeudela» izan zela, eta ondorioz kalera joan zela langilea. Zentzu honetan sindikatuak kaleratze salaketa jarri du eta baita arazoa kaleratu ere. «Arazoa kaleratzeko» modua hauxe izan da; prentsa oharra zabaldu eta Maixabel: *Despidorik ez kartelak jarri*. «ELAri ez zaio iruditzen kartel hauen mezua irangarria denik, uneko errebindikazioa baiziki», izan ere euren helburua «langileen defentsa eta zerbitzuaren kalitatea bermatzea da». «Egoitza udal zerbitzu bat denez, diru publikoaz sustengatzen denez, langileen eskakizunak kontuan hartzeko eskatzen diogu Udalari».

19.448 ordu

Udalak, bere aldetik, baldintza-agiria uztailearen 2tik 8ra Udaleko ohar-taulan egon zela eta boletinean uztailearen 10ean publikatu zela esan du; «pliego hauek langileek ikusiak izan ziren eta ez zuten inongo erreklamaziorik jarri». «Baldintza administratibo berezien agiriak, I. artikuluan, zehazten ditu esleipendunaren lan eginkizunak. Bertan adierazten da beste kontratatik datozen langileez

arduratu beharko duela euren eskubide eta betebeharrak bermatuz. Guk enpresari jakinarazi genion», gaineratu du Udalak.

19.448 lanordu horien iguruan ere eman du erantzunik: «Eskututako gutxieneko ratioak dira; hau da, urtean zehar 19.448 orduetan zehar kontratatutako enpresak zerbitzua eskaini beharko du. Ordu hauek diputazioak ezartzen dituen ratioak gainditzen ditu, Udalak eskatutako 19.448 orduko zerbitzua betetzeko behar diren orduak ez dira gure ardura».

ELA, hala ere, 22.609 orduak mantentzearen aldekoa da, «langile kalean geldu ez zedin», eta horregatik esan du Villabonako alkateari, Maixabel Arrietari (ANV), bilera bat eskatu ziotela eta bere erantzuna «ordu horiek ondo zeudela» izan zela, eta ondorioz kalera joan zela langilea. Zentzu honetan sindikatuak kaleratze salaketa jarri du eta baita arazoa kaleratu ere. «Arazoa kaleratzeko» modua hauxe izan da; prentsa oharra zabaldu eta Maixabel: *Despidorik ez kartelak jarri*. «ELAri ez zaio iruditzen kartel hauen mezua irangarria denik, uneko errebindikazioa baiziki», izan ere euren helburua «langileen defentsa eta zerbitzuaren kalitatea bermatzea da». «Egoitza udal zerbitzu bat denez, diru publikoaz sustengatzen denez, langileen eskakizunak kontuan hartzeko eskatzen diogu Udalari».

Honen aurrean Udalak «zerbitzuaren kalitatea ez dugu gutxitu

eta ez dugu inongo asmorik egoitzaren kontura dirua aurrezteko. Guztik aurkako, aurtan inoiz baino gehiago inbertituko dugu bertean», esan du.

Aferaren azken atala

Afera honen azken atala azteazkenean hasi zen, gainera, ordu bete-betean lanuztea egin baitzuten Residencia Geriátrica Catalunya2 enpresako langileek. Gaur ere gauza bera egingo dute, 10:00etatik 13:00etara eta martxoaren 3, 5, 9, 11 eta 13an ere lanuzteak egitea aurreikusi dute.

ELAk esandakoaren arabera hilaren 18an erabaki zuen Langileen Batzarrak lanuzteekin hastea eta arazoak bi dira. Lehen hauxe da, «Gipuzkoa mailan negoziatzen ari den hitzarmenean lau hilabete pasa ondoren patronalak ez duela ora indik erantzun ELAk egiten dituen eskakizun nagusiei: Oinarritziko soldata, subrogazioa, lantsari osatuak, lanaldiaren murrizketa, igande eta jai egunetako plusa eta urteko egutegia».

Bigarren arrazoiaren berri ere eman dute: «Santiago egoitzan subkontratarekin enpresako ituna berritzeko eduki ditugun negoziaketan, azken eskaintzak ez duela-ko ekiparazioa aurreikusten, eta langileok, egoitza udal zerbitzua bat denez, Udalarekin ekiparazioa eskatzen dugulako».

Hau dela-eta sindikatuak Udaleko arduraduneri langileek egiten duten ekiparazioaren eskakizuna kontutan hartzeko eskatu die.

Amaitu dituzte jada 0-2 urteko umeentzako haurtzaindegiko zabaltze lanak

Ibarra» Eskari-kopurua goraka doala-eta martxoan 50 plaza eskaintzeko moduan izango direla dio Udalak.

ERREDAKZIOA

Ibarrako Udalak jakinarazi duenez, aurreikusitako epearen barruan amaitu dira 0 eta 2 urte bitarteko haurrei zerbitzua ematen dien Kukumiku haurtzaindegiko handitze lanak.

Txelo Romeo herriko alkateak, Udaltzatuko beste kideekin batera, haurtzaindegiko instalazioak bisitatu zituen atzo gainera, «jarduera honen egunerokoan eragozpenik ez sortzeko Inauteri jaien egunetan gauzatu den jarduketan honen emaitza bertatik bertara ikusteko», argitu zuen zentzu honetan Udalak.

30.000 euro

Ibarrako Udalak 30.000 euro inbertitu ditu San Inazio auzoan dagoen haurtzaindegia handitze lanetan, egun indarrean dagoen araudira egokitzeko eta haurrei plaza kopuru handiagoa eskaintzeko asmoz. Era honetan erantzun nahi izan dio Udalak herriko bizilagunen artean geroz eta handiagoa den eskariari.

Era berean, haurtzaindegian sartzeko eskari-kopurua goraka doala esan dute Udaletik eta instalazioak handitu izanak datorren martxoan 50 plaza eskaintzeko aukera emango duela.

Mugikortasun Plan Iraunkorra lantzeko azterketa aurki hasiko dute

Ibarra» Biztanlegoaren bizi kalitatea hobetzeko kontratatu du azterketa; lehen fasea martxoaren 2an hasiko da.

ERREDAKZIOA

Ibarrako mugikortasun arazorik nagusiena auto pribatuaren erabilera anitza izan dela ikusita Mugikortasun Plan Iraunkorra lantzeko azterketa hastear dagoela iragarri du Udalak. Izan ere, mankomunitateak aparkalekuen inguruan arazo handia dagoelagoratu du, batez ere, Tolosako TAO tasak ekiditeko helburuarekin, Ibarrako sarreran autoak uzten dituztenen aldetik.

Horiek horrela, arazo hauei guzciei irtenbidea emateko garraio mota iraunkorreni (oinezkoa, bizikleta eta garraio publikoa) lehentasuna eman eta biltzen dituen mugikortasun eskema bat landu nahi dute, era berean, auto pribatuaren erabilera arrazionala bultzatuz. Ibarrako sarreran autoak uzten dituztenen inguruan hausmarketa bat egitea planteatu dute.

Planak fase desberdinak izango ditu, horietako lehen martxoaren 2an hasiko delarik. Datu bilketa egingo dute, zehazki, aipatu egunean, inkesta bidez. Ondoren inkesta zehatzak finkatuko dituzte eta bertako emaitzekin Ekintza Plana gauzatu dute. Planaren bultzatzaileek herritarrek parte hartzera gonbidatzen dituzte.

Laburrak

San Inazio parkea itxia astelehena bitarte

IBARRA» Ibarrako Udalak esan duenez, San Inazio parkea itxia egongo da astelehena bitarte. Parkea 0 eta 2 urte bitarteko haurrentzako haurtzaindegia ondoan dago eta bertan berritze lanak egiteko itxi dute.

699 zenbakia da eskolaren zozketaren sariduna

BERROBI» Berrobiko San Andres herri eskolak aditzera eman duenez, bertan egin ohi duten zozketaren zenbaki saritua atera da jada eta 699 da, zehazki. Horiek horrela, saritua eskolatik pasatzeko eskatu dute.

Hilberria

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak-urteurrenak-eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldeko HITZA.info / Tel. 943-65 56 95

JOSE GALDOS ANDUEZA

JAUNA
(M^{re} Carmen Legorbururen alarguna)
MASTI-BERRI TABERNA
Ostegunean hil zen Erreterian 79 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren
-Goian bego-

Bere seme-alabak: Loren eta Carmen Diaz, Maite eta Angel Mitxelena (†); bilobak: Iker, Alazne, Olatz, Aurea eta Iokir; anai-arrebak, ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.
Haren arimaren alde otoiitz bat eskatzen dizuet eta arren etor zaitezte OSTRIRALEAN, arratsaldeko ZAZPIRETAN, Erreterian MADALENA ERMITAN egingo den hileta elizkizunetara. Aldez aurretik, mila esker.

Helbidea: Maria de Lezo 33, 4. pisua.

OHARRA: Gorpua Zentolen beilatokia ingongo da ostrial eguerdikiko ordu bata arte.



ERRETERIAN,
2009ko otsailaren 27an



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leizaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

■ **Alegia.** Emakumeen afaria izango da Txintxarri jatetxean, martxoaren 7an, larunbatarekin. Prezioa: 15 euro. Alegiako Udalak afariaren erdia ordaintzen du (menua berez, 30 eurokoa da). Tikitak salgai martxoaren 4ra arte Kultur Etxean. Menua: entsalada epela, entrekota...

■ **Villabona.** Amasa-Villabonako ezker abertzaleak deituta, kanpaina amaierako afaria izango da Kultur Etxean, 21:00etan. Parte hartzeko deialdia luzatu dute.

Zinema

■ **Tolosa.** *La clase* filma emango dute Leidor aretoan asteburuan: gaur 22:30ean, bihar 22:30ean eta astelehenean (Ikuslearen eguna) 20:30ean.

Ikastaroak

■ **Aduna.** Haur berezietan lan egiteko ipuin tailerra *El cuento y la inclusión* izenburuan, Ana Torrellese emana, martxoaren 6an eta 7an. Izen-ematea, Kultur Etxean, 60 eurotan. Informazioa *asvineana@gmail.com* edo 647 201401 telefono zenbakian.

Kirola

■ **Alkiza.** Alkizako II. Frontenis Txapelketarako izen-ematea Elizegi tabernan. Edozein herritarrek parte hartu ahal izango du, hamasei urtetik gora, bost euro ordainduz.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Olarraga, M. Martin Jose Iraola, 10. 943 672438.
■ **Lekunberri.** Mendia, M.I. Aralar kalea, 25. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Ziur hemen Inauteriak izan direla?

TOLOSA ● Irudi honi erreparatu gero gezurra dirudi Inauterien egun handitik hiru egun baino ez igaro izana. Herriak atzean utzi du festa eta normaltasunera bueltatu da. Orain, balorazioen txanda heldu da. Hain zuzen ere, atzo elkartu ziren festa batzordekoak alor guztiak aztertzeko. Ondo eginikoak gorai patzeko eta oker eginikoak konpontzeko garaia da orain, urte urte festa biribilgoak izan daitezzen: ibilbidea, udal langile kopuruak, partaideak... Garraio publikoak ere egin du bere balorazioa; Renferen esanetan, «49.500 lagunek erabili dute tren Tolosara etortzeko, iaz baino 8.500 gehiagok». Oraindik ere balkoi batean edo bestean ikusi dira Inauterietako oihalak... Oraindik lo egongo al dira jabeak? I. TERRADILLOS

eragin eta
aldatu

bozkatu

ezkerreko **alternatiba** abertzalea aralar

www.zarolar.net

A Agurrak

agurrak

urtebetetzeak - urrezko ezteiak - ezkontzak jaioberriak - jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZaren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZaren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak